



EBAZPENA, 2014ko uztailaren 21koa, Euskadiren Estatu Batuetako ordezkariarena; honen bidez ebazten da hautaketa prozesua Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzaren zerbitzura lan egiteko Enpresa Teknikari / Merkataritza Teknikari / Market Analyst lanpostu bat eta idazkari/administrative assistant kategorian beste lanpostu bat hornitzeko.

Euskadiren Estatu Batuetako ordezkariaren 2013ko otsailaren 12ko ebazpenaren bitartez, deialdia egin zen Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzaren zerbitzura lan egiteko Enpresa Teknikari / Merkataritza Teknikari / Market Analyst lanpostu bat eta idazkari/administrative assistant beste lanpostu bat hornitzeko.

Enpresa Teknikari / Merkataritza Teknikari / Market Analyst lanpostuari zegokion hautaketa frogetara, eskaera egin zuen hautagarik aurkeztu ez zela ikusita, lanposturako deialdia hutsik deklaratzeko da.

Idazkari/Administrative assistant lanpostuaren hornitzeari dagokion hautaketa prozesuari dagokionez, deialdiaren oinarrietako eranskinean jasota dauden oinarri-arauen 7.2 atalean aurreikusten den legez, 2014ko uztailaren 18an, Epaimahai Kalifikatzaileak prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrenda egin du, zeinak hautagai bakarra duen. Beraz, egoki da zerrenda hori eta behin betiko aukeratutako hautagaiaren izena plazaratzea.

Horiek horrela, eta oinarri-arauen 7.3 atalean ezarritakoari jarraituz,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzan, Enpresa Teknikari / Merkataritza Teknikari / Market Analyst lanpostua hornitzeko deialdia hutsik deklaratzeko, eta lanpostua ere hutsik deklaratzeko.

Bigarrena.- Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzan idazkari/administrative assistant kategorian lanpostua betetzeko hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen behin betiko zerrenda argitaratzea. Hona hemen zerrenda:

1. MAURA DOLAN CAITLIN.



Hirugarrena.- Beraz, idazkari/administrative assistant kategorian MAURA DOLAN CAITLINI lanpostua esleitzea.

Laugarrena.- Maura Dolan Caitlini egutegiko hamabost (15) eguneko epea ematea, eskatutako eta alegatutako eskakizunak betetzen dituela egiaztatzeko eskatzen zaizkion jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak aurkez ditzan. Hamabost (15) eguneko epea hasiko da kontaktzen aurkeztu beharreko dokumentazioa zehazten duen eskaera egokia jakinarazten den egunaren biharamunetik.

Bosgarrena.- Ebazpen honek ez du administrazio bidea agortzen eta bere aurka Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren aurrean gorako errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epearen barruan, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontaktzen hasiko duena.

ANDER CABALLERO
Euskadiren Estatu Batuetarako ordezkaria